



III. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

OSASUN ZIENTZIAK

**Ama hizkuntzaren erabilpenaren
eragina Alzheimer dementziaz
hunkitua den pertsonaren
akonpainamenduan**

Maritxu Goyheneche

38-47 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.04.05>



Ama hizkuntzaren erabileraren eragina Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren akonpainamenduan

Goyheneche, Maritxu

(ergoterapeuta) LURO fundazioa

m.goyheneche@hotmail.com

Laburpena

Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonak, ama hizkuntza erabiltzearen joera luke. Ikerketa honek « zein izango litzateke ama hizkuntzaren erabileraren eragina Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren akonpainamenduan » galderari erantzunen dio. Horrentzat Alzheimer dementziaz hunkituak diren 4 pertsonaren garbitze denborak bai euskaraz, bai frantsesez eginak eta ebaluatuak izan dira. Medikuntzako hamar profesional galdezkatuak izan dira ere, haien iritzi subjektiboa gai honi buruz biltzeko. Oro har, egiaztatu da, ama hizkuntzak eragin baikorra duela Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren motibazioaren gainean, baita haien esku hartzean eta jarreraren ere.

Hitz gakoak : Alzheimer Dementia, ama hizkuntza, motibazioa, esku hartzea.

Abstract

People with Alzheimer's disease will be more likely to use their mother tongue. This is why this research answer the question " what would be the impact of the mother tongue in the support of a person suffering from Alzheimer's disease ". For this, the toilets of people were made and evaluated in Basque and French. 10 medical professionals were also interviewed, in order to have their subjective opinion on this subject. In short, it proves that the mother tongue would have a positive impact on the motivation of a person with Alzheimer's but also on his participation and his behavior.

Keywords : Alzheimer's disease, mother tongue, motivation, participation.

1. Sarrera

Munduan zehar, herri anitzetan bi hizkuntza bederen mintzatzen dituzten herritarrak aurkitzen dira, baita kultura ezberdinak partekatzen dituztenak ere. Gaur egungo Europan, bere hizkuntza erabiltzen duen komunitate batek, bere aberastasun kulturala, besteeikiko irekidura, eta komunikatzeko nahia erakusten du. Ipar Euskal Herrian eta zehazkiago Euskal Hirigune Elkargoan euskal kultura oso errotatua da. Euskara etxeetan erabilia izateaz gain, lehengo eta gaurko belaunaldiek erabiltzen dute ere bai. Euskararen Erakunde Publikoaren arabera (1), 2016an, Euskal Hirigune Elkargoan 51 200 pertsona inguru euskalduna zen, eta honek eskualde honen populazioaren % 20,5 errepresentatzen du.

Horrekin, interesgarria izango litzateke jakitea ea ama hizkuntzaren erabilerak (kasu honetan euskarak) eragin positiboak litzuzkeen segipen terapeutikoan eta konfiantza harreman bat sortzea artatzailearen eta pazientearen artean ahalbidetzen duen.

Gaur egun, Alzheimer dementzia gero eta gehiago aurkitzen den patologia neurodegeneratibo bat da. 2016an, Fondation de Recherche Médicale -en arabera eta Organisation Mondiale de la Santé (OMS)(2)-ren arabera, munduan 47.5 milioi pertsona dementziaz hunkitua dela estimatzen da, eta hauen artean % 60 eta % 70 Alzheimer dementziaz (AD).

Barkat-Defradas, M., & Frederique Gayraud (2013) (3), De Vreese, L. P., Motta, M., & Toschi, A., -ren ikerketaren arabera, elebiduna den eta Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonari, hizkuntzen nahasketa fenomeno bat agertzen zaio, eta zehazten dute ere bai ama hizkuntza dela pertsona horiek erabiltzen duten lehentasunezko hizkuntza. Baina literatura hori, ez da oraindik oso zabala, eta ez digu oraindik ahalbidetzen ziurtasun handiarekin erratea ea ama hizkuntza elementu laguntzaile bat den Alzheimer dementzia duen pertsonaren akonpainamenduan. Horrez gain, euskarari buruz hori zehazten duen ikerketarik ere ez dago, nahiz eta gaur egun gai honek euskaldun jende anitz hunkitzen duen.

Ikerketa honen helburua ama hizkuntzaren erabileraren abantaila erakustea da AD duten pertsonaren akonpainamenduan, eta gure kasuan, euskararen erabilera euskaldunekin. Ikerketa galdera hortik doa « zein izango litzateke ama hizkuntzaren erabileraren eragina Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren akonpainamenduan ? » eta hortik ama hizkuntzak Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren motibazioan, parte hartzean eta portaeran influentzia bat duela hipotesia ateratzen da.

2. Arloko egoera

2.1. Alzheimer tipoko demenzia (AD)

Alzheimer demenziaren garapenarekin, hizkuntza arazoak agertzen dira. Melissa Barkat-Defradas eta kideek (4) erraten dute, ADan, hizkuntza arazoak oso heterogeneoak direla. Baina, esplikatzen dute arazoak lehenik hitz ekoizpenean agertzen direla eta ulermena eta idatzia berantago kaltetzen direla. Zehazten dute ere bai, hizkuntza arazoak, ez direla arazo kognitiboak bezala aldatzen.

Melissa Barkat-Defradas eta kideek (2008) (4) demenziaren garapena segitzen duten 3 multzo ezberdintzen dituzte : hitz falta, semantika bereizketa eta diskurtsoaren pobretzea.

Beti Melissa Barkat-Defradas eta kideen arabera (4), ADak komunikazio arazoak ekarriko ditu, eta horrek, pertsona zailtasun egoera baten aurrean emanen du bere eguneroko behar sozial edota emozionalen adierazteko. Komunikatzeko arazo horiek usu pertsonaren haserrealdia sortuko dute eta gehienetan frustrazio handi bat, pazientearen nahiak edo beharrak gaizki ulertuak izanen direlako.

Barkat-Defradas, M., eta Frederique Gayraud-ek (3), esplikatzen dute De Vreese, L. P., Motta, M., eta Toschi, A-en ikerketarekin, sintomak agertu eta hizkuntzen nahasketa fenomeno bat agertzen dela, eta iduri luke pertsonak zailtasunak dituela egokia den hizkuntza hautatzeko. Gainera, elebidunak diren pertsonen zailtasunak lituzkete haien bi hizkuntzak bereizteko. Zailtasun hauek agertuko dira, demenziak, beharrezkoak diren arreta iturriak hunkiko baititu. Ondorioz, demenziak komunikatzeko beharrezkoa den egoeraren espezifikizitatea hizkuntza egokian mintzatzeko hunkiko du. Hau da, hizkuntzak bereizteko eta hizkuntza egokia aukeratzeko kontrola galtzen dute ADaz hunkituak diren pertsonen.

Barkat-Defradas, M eta kideek azpimarratzen dute, elebidunak diren gizarteetan, solaskideak elebidunak izateak komunikazio modifikazioen eragina ttipitzen ahal lukeela. Aldiz, elebakarrak diren gizarteetan, Frantzian bezala (ofizialak ez diren hizkuntza anitz baldin baditu ere, euskara, korsikera bezala...) komunikazio arazoak agertzen ahal dira.

Demoures eta Strube-ek. (2006) (5), esplikatzen dute, jarrera eta sintoma psikologiko ezberdinak agertzen direla ADaren garapenarekin: ezinegona, antsietatea, apatia, hiperemotibitatea... Gatchel, J. R., eta kideen (2017) (6) ikerketarekin, esplikatzen dute, ADan, apatia dela gehienetan agertzen den sintoma. Motibazioaren eta usaian egindako aktibitateen interesa murriztearen ondorioz, eguneroko aktibitateetan parte hartzea apaltzen dela diote.

2.2. Ergoterapeutaren esku hartzea, Alzheimer demenziaz hunkitua den pertsonarekin eta aliantza terapeutikoa.

Ergoterapeutaren xede nagusia, bere akonpainamendua pertsonaren inguruan zentratzea da. Horrentzat, egokitze gaitasun ona beharrezkoa du, aurkituko dituen profil ezberdinen aitzinean bere akonpainamendua osoa eta egokitua izan dadin.

Gaitasunen erreferentzialaren arabera (2018) (7), ergoterapeutak deszentralizatzeko gai izan behar du, bere kulturaz haratago ikusteko eta horri esker, artatzen dituen pertsona guziei bizi proiektu berezi eta pertsonal bat finkatzeko gisan.

“Artatzaile eta paziente harremana” aipatzen delarik, aliantza terapeutikoa aipatzen da ere bai. Hau da, « sortua den harremana artatzailearen eta pazientearen artean, bata bestearekin elkarlanean aritzea engaiatu denean, pazientearentzat hobekuntza bat aurkitzeko asmoarekin » BOSSIO L, DHONT M. (2012) (8).

Anne Lacroix (2010) (9)k aliantza terapeutikoa partekatze esperientzia bat bezala definitzen du, non ikusmoldeak, jarrerak eta portaerak aldaketa jasan dezaten, eta non artatzaileak « harremanari » pentsatu behar dion « ekintzari » pentsatu baino lehen. Azpimarratzen du ere bai ikusmolde kliniko horrek pazientearen hitza biltzea lagunduko duela, hitzen bitartez pertsonak bere zailtasun eta trabak partekatuko baititu.

Aldiz, Pascal Grouber -ek (10) zehazten duen bezala, pertsona ez da bere dementzian bakarrik ttipitua eta oso garrantzitsua da akonpainamendu etiko bat eraikitzea, portaera sozial egokiekin, pertsonaren gaitasunak sustatzeko gisan. Aurkezten du ere bai, dementzia instalatua delarik, garrantzitsua dela bizi estruktura egonkortasun bat atxikitzea pertsonarentzat, dituzten konpetentziak sustatzeko erritual eta programekin. Bestalde, oinarritzkoa dela ADA duen pertsona bat artamendu erlazio zentroan ematea, diote ere bai.

Oro har, jakinez ulermen on batek konfiantza lagunduko duela, eta ADaz hunkituak diren pertsonak ama hizkuntzara berriz itzultzeko joera luketela, ergoterapeutak, baita medikuntzako diziplina guztiek ere (pertsonaren eguneroko usaietan parte hartzen baitute) haien gaitasunen arabera, haien hizkuntza eta hitz egiteko usaiak pertsonaren maila gizarte-kulturalean egokitu behar dituzte.

3. Ikerketaren muina

3.1. Ikerketaren egitura eta helburua

Ikerketa hori, LURO fundazioan egin da (Izpuran kokatua). Euskal Herrian eta zehazkiago Nafarroa Beherean kokatua den zahar etxe hori bereziki hautatua izan da, pertsona elebidun kopuru handi bat biltzen duelako, bai artatzaileetan, bai pazienteetan ere ; eta gehiengo batek ama hizkuntza euskara duelako. Ondorioz, ingurumen multikultural hori oso egokia da elebidunak (euskara/frantsesa) eta ADaz hunkitua den pertsonaren akonpainamendua ikertzeko.

Lehen partean ADaz hunkitua diren lau pertsona eguneroko egoeretan aztertuak izan dira. Hala nola, terapeutak, goizeko garbitze momentua bi tarte ezberdinetan egiten du, bat euskaraz eta bestea frantsesez. Artatze mementu horiek “Volitional Questionnaire” (1.eranskina) delakoarekin ebalatuak izan dira.

Ebaluazio hori motibazioak zoin diren erakustea gai ez den pertsonarentzat pentsatua izan da. Galdeketa honetan, artatzaileak 14 sail bete beharko ditu pazienteak egindako aktibitatea behatu ondoren. Saila bakoitzean, aldi oro pazienteak definitzen duten lau hitzen artean bakar bat hautatu beharko du, lau hitzak izanki : 1)pasiboa, 2)dudakorra, 3)inplikatua eta 4)bere baitatik.

Eta sailak besteak beste izanki :

- Aktibitatearekiko kuriositatea erakusten du.
- Iniziatibak hartzen ditu.
- Agertzen diren arazoak konpontzen saiatzen da.
- Aktibitatea bukaera arte segitzen du.
- ...


Ondotik puntuatzea kontatuko da, jakinez gero eta emaitza goragoa izan, orduan eta motibazioa goragoa izanen dela. Aktibitate anitz behatu ondoren, edo kasu honetan, ber aktibitatea ingurumen ezberdin batean (hizkuntzaren erabilpena), emaitza ezberdinek pertsonaren motibazioaren aldaketa erakusten digute baita motibazio gehien ekartzen duen testuingurua ere. (11)

Behaketa eta ebaluazio horren helburuak hauek ziren : aktibitate denboran, ea euskararen erabilerak eraginik duen motibazioan eta parte hartzean.

Bigarren partean, galdeketa kualitatibo bat eginga izan da, zahar etxeko profesionalekin, elkarrizketa erdi estrukturatu baten bidez (hala nola, galderak nahitara zabalak eta irekiak ziren, errazkiago profesionalen esperientzia eta pentsatzeko manierak biltzeko). (2.eranskina). Helburua, profesionalen esperientzia subjektiboen bidez ikustea zen, ea euskararen erabilerak motibazioan, parte hartzean baita portaeran ere eragina duen ADaz hunkitua den pertsonarengan.

3.2. Emaizak

3.2.1. Eguneroko egoeren emaitzak (motibazioa, eta parte hartzea ebaluatzen dutenak)



3.2.2. Galdeketen emaitzak

- Ama hizkuntzaren erabileraren eragina, motibazioan ADaz hunkitua den pertsonarengan.

Profesionalen iduriko, pertsonak ez du hain apatikoa iduri eta aktibitate proposamenari irekiagoa da bere ama hizkuntza erabiltzen duelarik. Iruditzen zaie, euskarazko hitz batzuekin aski dela, hari beharrezkoa den kuraia emateko eguneroko aktibitate baten egiteko. Profesionalen ustez, konfiantzazko harreman batetik etorriko litzateke, ama hizkuntzarekin sortzen den hurbiltasunari esker.

Erizainek eta ergoterapeutak, baieztatzen dute euskaraz mintzatzean ADaz hunkitua den pertsona batekin, kuriositate gehiago duela eta bere buruaz askoz gehiago hitz egingen duela. Pertsona erneago atzematen dute eta eguneroko aktibitateetan gehiago parte hartzen duela sentitzen dute. Segurtatzen dute artatzaileak beste irudi bat duela pazientearen begietan ama hizkuntza erabiltzen duelarik. Eta horri esker errazago zaie pertsonaren egoera psikologikoa ezagutzea baita haien sentimen afektiboak ere. Mediku geriatrikoak azaltzen du « ama hizkuntza, buruan errotuena den hizkuntza da eta ondorioz semantika bereizketak urriagoak izanen dira edo berantago agertuko dira ». Ama hizkuntzaren erabilerari esker pertsonak elkarrizketan gehiago parte hartuko du, eta ondorioz bere ingurumenari interesa gehiago ekarriko dio.

- Ama hizkuntzaren erabileraren eragina, ADaz hunkituak diren pertsonaren parte hartzean.

Profesional guztiek, esplikatzen dute, ADaz hunkitua den pertsonak aktibitate batean gehiago parte hartuko duela, aktibitate hori euskaraz esplikatua edota pasatzen denean. Haien ustez, ama hizkuntza erabiltzeak, pertsona hauen entzumena baita ulermena ere errazten du, mezua argiagoa eta zehatzagoa izanen baita haientzat. Gero eta onuragarriagoa litzateke, haien iduriko, sentimendu eta emozioen adierazpena laguntzen baitu. Batzuek sentitzen dute pertsona erneagoa izanen dela eta atentzio askoz gehiago erakutsiko duela bere hizkuntza erabiltzen dugularik. Ergoterapeutak, beste profesionalek bezala dio, pertsona konfiantza handiagoan sentitzen dela, baina, gehitzen du helburuak eta aginduak hobeki ulertuak izanen direla ama hizkuntza erabiliz. Horri esker, aktibitatea adierazgarriagoa izanen da eta ondorioz parte hartzea hobea.

- Ama hizkuntzaren erabileraren eragina, ADaz hunkituak diren pertsonaren portaeran.

Profesionalak ohartzen dira, euskara erabiltzean, portaeraren alderdi batzuk aldatzen direla. Hala nola, gehienek (8/10 gain) sentitzen dute pertsona seguritatean dela, trukaketa euskaraz egiten denean. Erizain batek zion « bere gorputza lasaituko da, errazkiago utziko du jendea beregana hurbitzen, eta artatzaile baten laguntza ere errazkiago onartuko du, dutxa denboran adibidez ». Honek antsietatea zinez ttipitzen duela diote, pertsona askoz lasaituagoa sentituko baita eta ez hain galdua. Erizain laguntzaileek eta erizainek azaltzen dute eguneroko bizian, ADaz hunkituak diren pertsonak, usu herstura edota ezinegon gertakariak dituztela eta batzuetan oldarkorrak ere bai. Ohartu dira gertakari hauek lasaitzea

askoz errazago dela euskaraz aritzen direnean. Horrez gain, baieztatzen dute zinez ama hizkuntzaren erabilerak errazten duela mintzatu nahi ez duen pertsona batekin hitz egiteko eta eguneroko aktibitate batean parte hartzeko negoziatzeko tenorean. Erizainek esplikatzeko, trukaketan sortutako konfiantzari esker, pertsona gustura izanen dela eta berekiko informazio gehiago partekatuko dituela baita sentimendu anitz ere, eta horri esker artaren kalitatea hobetuko dela.

4. Ondorioak

Ikerketa honen galdera nagusia « zein izango litzateke ama hizkuntzaren erabileraren eragina Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren akonpainamenduan » zen.

Hortik ama hizkuntzak Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren motibazioan, parte hartzean eta portaeran eragina lukeelako hipotesia aztertu zen. Horri erantzuteko, garbitze egoerak antolatuak izan dira (bai euskaraz, bai frantsesez) zahar etxeko 4 pertsonarekin, eta galdeketa bat pasarazia izan da LURO fundazioko hamar bat profesionalei.

Eguneroko aktibitate bat egitekoan, goizeko garbitze denbora bezala adibidez, iduri luke ama hizkuntzak pertsonaren parte hartzean eta motibazioan inpaktu bat lukeela.

LURO fundaziotik galdezkatuak izan diren profesionalek azpimarratu dute ama hizkuntzaren erabilpenak eragin positibo bat duela ADaz hunkituak diren pertsonen parte hartzean, motibazioan eta portaeran. Profesional hauek azaltzen dute pertsona bakoitzaren arabera akonpainamendua egokitzen dutela eta ondorioz usu euskara erabiltzen dutela LURO fundazioko pertsonekin. Esplikatzeko ere bai hizkuntza honek pertsonaren mintzamina laguntzen duela baita sentimendu eta emozioen ulermena ere. Sentitzen dute pertsona konfiantza handiagoan dela eta horri esker artak errazkiago onartuko dituela. Gainera, haien portaera egokituz eta euskara erabiliz, ohartu dira ADaz hunkitua den pertsona aktibitate proposamenari askoz irekiagoa dela. Pentsatzen dute ere bai kontsignak eta helburuak ulergarriagoak direla eta ondorioz aktibitatea adierazgarriagoa izanen dela. Oro har, haien iritziz ama hizkuntzaren erabilerak artaren kalitatea zinez laguntzen duela baieztatzen dute.

Bukatzeko, ikerketa hori ADaz hunkitua den pertsonari zuzendua zaio, baina, profesional batzuen arabera, ama hizkuntzak pertsonaren akonpainamenduan eragina luke beste eritasun neurologikoetan ere bai, hala nola istripu zerebrobaskularren (iktus) artamenduan adibidez. Ezagutza hauekin, interesgarria izango litzateke ama hizkuntzaren eragina ikertzea istripu zerebrobaskular bat ukan duen pertsonaren akonpainamenduan eta errehabilitazioan.

5. Erreferentziak

1. Office Public de la Langue Basque (OPLB), Sous-Ministère à l'Education, Gouvernement de Navarre. Situation de la langue basque Résultats de la 6ème enquête sociolinguistique 2016 [Internet]. 2016 [cited 2018 Apr 13]. Available from: http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enquete_sociolinguistique/Syn-these_2016_francais.pdf
2. Fondation Recherche Médicale. L'ampleur de la maladie d'Alzheimer en France et dans le monde [Internet] [Lieu inconnu]. [cited 2017 Nov 18]. Available from: <https://www.frm.org/alzheimer/ampleur-maladie.html>
3. Barkat-Defradas M, Frederique Gayraud. Bilinguisme et maladie d'Alzheimer. Rééducation orthophonique. 2013;Les pathologies acquises du langage chez le patient bi- ou multilingue(253):31–52.
4. Barkat-Defradas M, Sophie M, Rico-Duarte L, Brouillet D. Les troubles du langage dans la maladie d'Alzheimer. In: 27^e journée d'études sur la Parole [Internet]. Avignon, France; 2008. p. actes électro-niques non numérotés. Available from: <https://hal.archives-ouvertes.fr/hal-00321233>
5. Demoures G, Strubel D. Prise en soin du patient Alzheimer en institution. Issy-les-Moulineaux: Masson; 2006.
6. Gatchel JR, Donovan NJ, Locascio JJ, Becker JA, Rentz DM, Sperling RA, et al. Regional 18F-Fluorodeoxyglucose Hypometabolism is Associated with Higher Apathy Scores Over Time in Early Alzheimer Disease. The American Journal of Geriatric Psychiatry. 2017 Jul;25(7):683–93. DOI : 10.1016/j.jagp.2016.12.017
7. Ministère du travail, de la solidarité et de la fonction publique, ministère de la santé et des sports. Diplôme d'état d'ergothérapeute référentiel de compétences [Internet]. [cited 2018 Jan 19]. p 178. Available from: <http://www.unilim.fr/ilfomer/files/2012/03/R%C3%A9f%C3%A9rentiel-de-comp%C3%A9tences-DEE.pdf>
8. BOSSIO L, DHONT M. Alliance thérapeutique, socle de la collaboration soignant – soigné - 200912bossio.pdf [Internet]. Congrès du département infirmier. 2012 Sep 20 [cited 2018 Apr 11]; Available from: <http://www.chu-charleroi.be/sites/default/files/documents/200912bossio.pdf>
9. Lacroix A., construire l'alliance thérapeutique, sur quoi, comment ?, dans Education du Patient et Enjeux de Santé, vol 28, n°3, Yvoir, 2010, pages 125 à 126
10. Question Santé - Alzheimer. Changer le regard des intervenants [Internet]. Question Santé. [cited 2018 Feb 28]. Available from: <http://questionsante.org/nos-publications-periodiques/bruxelles-sante/anciens-numeros/58-bs-76/68-alzheimer-changer-le-regard-des-intervenants>
11. . Jen-Suh Chern, Gary Kielhofner, Carmen, Gloria de las Heras, Livia C. Magalhaes. The Volitional Questionnaire: Psychometric Development and Practical Use [Internet]. [cited 2018 Mar 7]. Available from: <https://pdfs.semanticscholar.org/61d4/57480bcc77d6180031673aefadded25648a7.pdf>

6. Eskerrak

Lehenik, ene tutorea LEROY anderea HELHA eskolan Montignies-sur-Sambre-en erakasle dena eskertu nahi nuke. Honek, sustengatu, aholkatu eta segitu nau ene metodologian baita lan honen idazketa guzian ere. Ene bigarren tutorea, OSTROWIECKI anderea, LURO fundazioan ergoterapeuta dena eskertu nahi nuke ere bai, enekin partekatu dituen esperientzia eta ezagutzentzat. Ene esker onak bereziki LURO fundazioaren ekipa guztiari eskaintzen ditut, ene ikastaro osoan sustengatu naudelako eta erakutsi duten interesa eta suhartasunarentzat baita partekatu dituzten esperientzia guzientzat ere.

QUESTIONNAIRE VOLITIONNEL

Grille de résultats – QV

Centre de référence du modèle de l'occupation humaine (www.fmed.ulaval.ca/crmoh)

Client :	Situation d'observation :		
Âge :	Thérapeute :		
Diagnostic :	Date :		
	Hospitalisé :		
	Externe :		

DIMENSION ÉVALUÉE	ÉCHELLE DE COTATION				COMMENTAIRES
	P	H	I	S	
1. Fait preuve de curiosité	P	H	I	S	
2. Prend des initiatives	P	H	I	S	
3. Tente de faire quelque chose de nouveau	P	H	I	S	
4. Montre de la ténacité	P	H	I	S	
5. Cherche des défis à relever	P	H	I	S	
6. Cherche à assumer plus de responsabilités	P	H	I	S	
7. Essaie de corriger ses erreurs	P	H	I	S	
8. Essaie de résoudre les problèmes	P	H	I	S	
9. Montre ses préférences	P	H	I	S	
10. Poursuit l'activité jusqu'à la fin	P	H	I	S	
11. Maintient sa participation à une activité	P	H	I	S	
12. S'investit dans ses activités avec plus d'énergie, d'émotion et d'attention	P	H	I	S	
13. Fixe des objectifs	P	H	I	S	
14. Montre qu'une activité est significative ou qu'elle a un attrait particulier	P	H	I	S	
TOTAL	P = 1 H = 2 I = 3 S = 4				

Légende :	P = passif	H = hésitant	I = impliqué	S = spontané
Échelle de cotation :				

Traduction par Monique Gillel, du « The Volitional Questionnaire » (version 4.0) de Carmen Gloria de Las Heras, Rebecca Geist et Gary Kohn, Université de l'Illinois, Chicago.
CRMoh, janvier 2005

2. Eranskina : Galdeketa

1. Zoin da zure ama hizkuntza ?

2. Zahar etxeko pertsonarekin zoin hizkuntzetan hitz egiten duzu ?

3. Zertan ama hizkuntzaren erabilerak Alzheimer dementziaz hunkia den pertsona baten ulermenean eragiten du ?

4. Zure ustez, Alzheimer dementzia duen pertsona bat, gehiago konfiantzan sendituko da bere ama hizkuntzan hitz egiten badiozu ?

5. Zure ustez, pertsona hori motibatuago izanen da bere ama hizkuntzan hitz egiten badiozu ? Nola ?

6. Senditzen duzua ADz hunkitua den pertsona batek, aktibitate batean gehiago parte hartuko duela hizkuntza bat edo bestean hitz egiten badiozu ? Zergatik ?

7. Zure ustez, erabilitako hizkuntzak eragin bat ukan dezake ADz hunkitua den pertsona baten portaeran aktibitate denboran ? Zergatik ?

8. Beste aldaketa batzuk badirela pertsonaren portaeran euskaraz hitz egiten diozunean (bere ama hizkuntzean) ? Zerbait gehitu nahi zenuke ?